



LEHIAKETAREN OINARRIAK

BELDUR BARIK JARRERA 2024

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA



BULTZATZAILEAK
IMPULSAN



LAGUNTZAILEAK
COLABORAN



Edukia

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?	3
LANEN EZAUGARRI ETA BALDINTZAK	4
BALORAZIO IRIZPIDEAK	5
NORK ETA NOLA HAR DEZAKETE PARTE?	6
NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA	7
LANAK AURKEZTEKO EPEAK	7
SARIAK	8
LEHIAKETAREN EBAZPENA	9
HERRI BOZKAKETA	9
LEGE-ALDERDIAK	10
ANTOLAKETA	11

ZER DA BELDUR BARIK JARRERA?

Beldur Barik jarrerak “bere bikote edo bikote-ohiaren eskuz indarkeria fisikoa pairatzen duen emakume heldua”ren estereotipoa gainditzea eskatzen du eta neska gazteek euren bizitzen esparru guztietan sufritzen dituzten indarkeria sexistaren manifestazio anitzak ikusarazteko lan egiten du, hauek euren eguneroko testuinguru eta esparru guztietan hautematen den desorekaren ondorio direlarik.

Beldur Barik jarrera gazteek sufritzen duten indarkeria matxistaren beste manifestazio batzuk (translesbohomofobia) hautematean ere datza.

Honetarako, irudikapen sentsazionalistetatik eta melodramatikoetatik aldentzen da eta indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste adierazpenak ematea ahalbidetzen duten faktoreen inguruan hausnarketa egiten du.

Erreferente positiboak erakustea du helburu: ahalduntutako neska indartsuak eta indarkeria sexistaren aurkako borroka aktiboan inplikatzaren mutikoen begirunetsuak, zeinek indarkeria sexista neskei bakarrik eragiten dien zerbait ez dela erakusten duten.

- Neskak: indarkeria edo desoreka egoeren aurrean ahalduntze eta autodefentsa jarreraren erakusten ditu.
- Mutikak: Desoreken, kultura matxistaren eta indarkeria sexistaren aurrean jarrera autokritikoan, proaktiboan eta konprometituan erakusten ditu, korporatibismo maskulinoarekin hautsiz.
- Gorputzen, identitateen eta sexualitateen aniztasuna ikusarazten du.

Indarkeria, hau sortzen duten faktoreak, eta bere manifestazioak identifikatzeaz gain, kritikoa, urratzailea eta positiboa den jarrerarekin aurre egiten zaio.

Planteatzen diren irtenbideak indibidualak zein kolektiboak izan daitezke.

LANEN EZAUGARRI ETA BALDINTZAK

- Lan guztiak **ikus-entzunezko formatuan** aurkeztu beharko dira. Lanek **gehienez 3 minutuko luzera** izango dute, kredituak barne.
- **Lanek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote.** Aurkeztutako lanen edukiak helburuaren lorpenerako helburuarekin zerikusirik ez, edota beraren aurkakoa edota kalterakoa izanez gero, lehiaketa antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete. Ebazpena parte hartzaileei jakinaraziko zaie.
- Proposamenak originalak izan beharko dute, **plagiatu, usurpatu edota hirugarren pertsona batzuei kopiatu gabekoak**. Susmorik izanez gero, lanari dagozkion autoretza probak eskatuko dira.
- Lanak ezin izango dira Beldur Barik programarekin lotuta ez dauden **beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak izan**.
- Lanak **euskaraz, gazteleraz, elebietara zein bestelako hizkuntzaren baten** aurkeztu ahal izango dira, baldin eta euskarazko edota gaztelerazko azpitoluak badituzte. Honetarako, CapCut edo Wondershare bezalako aplikazioak erabiliz.
- **Ikus-entzunezkoak azpitoluak eraman behar dituzte.** Azpitoluen helburua irisgarritasun bermatzea da. Azpitoluak fondo beltzaren gainean eta hitzak zuriak izatea gomendatzen da.
- **Autoretza eskubideetatik aske daudenak erabiltzea gomendatzen dugu** (copyleft lizentziadunak edota norberak sortuak). Autoretza eskubideak dituzten irudiak edota abestiak erabiliz gero, parte hartzaileek beraien gain hartzen dute bideoa igotzen duten plataformek zein autoreek bideoaren aurka hartzen dituzten neurriak. Era berean, egiaztatzen badugu jabetza intelektualaren eskubideren bat urratzen duela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.
- Bideoa webgunera igotzerako orduan “izen-emate” atala online bete beharko da.

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektu parte-hartzaileek Beldur Barik Jarrera islatu behar dute, hau da, indarkeria matxistaren adierazpen mota guztiak gainditzeko eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate teknikoaren edo artistikoaren gainera, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko eta mutilen konpromisoa matxismoaren aurka, Beldur Barik Jarrera aldarrikatuz.

- Originalitatea mezuak adierazteko orduan.
- Begiraden irekiera gazteek beraien egunerokoan bizi dituzten indarkeriaren adierazpenak identifikatzeko orduan.
- Aurkeztutako irtenbidearen ikuspegia eta tonua (Beldur Barik Jarrera, humorea, erantzun positiboak etab.)
- Positiboki baloratuko da, bai euskararen erabilera, bai azpigituluak sartzea
- gaztelarazko audioa duten obreta

NORK ETA NOLA HAR DEZAKETE PARTE?

12-20 urte bitarteko gazteek hartu dezakete parte, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi edo ikasten dutenak.

- Parte hartzerako hiru kategoria daude:
 1. kategoria: 2011an eta 2012an jaiotakoak (2024an 12 edo 13 urte beteko dituztenak)
 2. kategoria: 2006 eta 2010 bitartean jaiotakoak (2024an 14-18 urte beteko dituztenak)
 3. kategoria: 2004 eta 2005 bitartean jaiotakoak (2024an 19-20 urte beteko dituztenak)

Talde-lan batean parte hartzen dutenen %40a gainerako %60a baino nagusiagoa izateagatik goiko kategoria batenak direnean, lanak zuzenean hurrengo kategorian parte hartuko du.

18 urtetik beherako parte hartzaileak egonez gero:

I. eranskina edo II. eranskina beteta aurkeztu beharko dute, horretarako izen web orrialdean izena ematerakoan atxikituta aurkituko dituzte ondorengo eranskinak.

- 1. Eranskina. Norbanakoen baimena: ama/aitaren zein legezko tutoreen baimena adin txikikoek Beldur Barik programan parte hartu dezaten.
- 2. Eranskina. Taldekako baimena: ikasgela edo hezkuntza zentro bezala aurkezten diren lanentzako. Eranskin hau betetzeko arduraren zuzendaritzarena izango da, zentroa bera izango delarik banakako baimenak jasotzearen arduraduna.
- Gaztelekuak eta elkarteak: proiektuan parte hartzen duten parte hartzaile guztien banakako baimenak aurkeztu beharko dira, eta batera aurkeztu beharko dira.

NOLA AURKEZTU LANA LEHIAKETARA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

1. Lanak hurrengo plataforma batera igoz: Youtube, Instagram edo Tik Tok era. Plataforma hauek sortzen duten esteka da aurkeztu behar dena (gogoratu, bideoak modu publikoan argitaratu beharko dira). Formatu grafikoa bada, JPG formatuan erantsi behar da 2. pausoa azaltzen den formularioa betetzean.
2. Igotako bideoen deskribapenean, bideoaren izenburua erantsiko da, baita zein udalerritatik eta zein kategoriatik aurkeztu den ere. Ez dira parte-hartzaileen izen-abizenak edo datuak jarriko.
3. Beldur Barik web orrialdean topatzen den formularioa bete ezazu, www.beldurbarik.eus helbidean. Formulario honetan aurretik ikus-entzutezko plataformara igotako bideoaren esteka jartzen da edo JPG formatuan dokumentua eransten da.
4. Formularioa osatu eta gero, izen ematea modu zuzenean burutu dela esaten duen mezua agertuko da.
5. Lehiaketarako lana aurkeztu eta gero programaren idazkaritza teknikoak egiaztatuko du oinarrietan agertzen diren baldintza guztiak betetzen dituela.
6. Egiaztatu eta gero, idazkaritza teknikoak formularioan erraztutako emailera jakinarazpena bidaliko du, lehiaketan onarpena edo ez-onarpena jakinaraziz. Onartutako lanak web gunean publikatuko dira

LANAK AURKEZTEKO EPEAK

Lanak aurkezteko eta jasotzeko epea 2024ko irailaren 20an irekiko da, goizeko 08:00etan, eta 2024ko azaroaren 8an itxiko da, gaueko 23:59etan.

SARIAK

- 1. Kategoriako saria: 400€
- 1. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- 2. Kategoriako saria: 400€
- 2. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- 3. Kategoriako saria: 400€
- 3. Kategoriako aipamen berezia: 200€
- Ikus-entzunezko lan onenaren saria*: 300€
- Parte-hartzearen saria**: 300€

Goian aipatutako sariei dagokien atxikipen fiskala aplikatu zaie.

Aurkeztutako lanek bai lehiaketa orokorrean bai lanean adierazten duten udalerriko tokiko lehiaketetan parte-hartuko dute. Kontuan izan herri guztiek ez dutela Beldur Barik tokiko lehiaketarik antolatzen.

* Ikus-entzunezko lan onenaren saria Beldur Barik Jarrera! adierazteko kalitatezko komunikazio artistikoko baliabideak edota kodeak erabili dituen hiru kategorietako edozein lan emango zaio.

** Parte-hartzearen saria herri-bozketan boto gehien lortu dituen lanari emango zaio, baldin eta lan hori Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean badago.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik uzteko eskubidea dute. Sarietako irabazleek beren lanaren eskubideak Emakunderi lagatzen dizkiote, gazteriari zuzendutako kanpainetarako erabili ahal izateko, hala erabakiko balu.

LEHIAKETAREN EBAZPENA

Antolakuntzak epaimahaia izendatuko du, eta berau osatuko dute: proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariak; aurreko edizioko irabazleak; eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politiken alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministek.

Epaimahaiaren eginkizuna izango da hiru kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

Lan sarituak ezagutzera emango dira 2024ko azaroaren 29 an, **ARABAKO** udalerriren batean ospatuko den Beldur Barik Topaketan.

HERRI BOZKAKETA

Epaimahaiak alde zuzenetik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, hain zuzen ere, Beldur Barik Jarrera irizpideak modu egokian adierazten dituzten lanekin (oinarrietako lehen puntuan jasota datozenak). Horiek izango dira herri bozkaketara pasatuko diren lanak.

Parte hartzearen saria izendatzeko herri bozkaketa sistema azaroaren 18an aktibatuko da, goizeko 08:00etan. Parte hartzeari saria irabaziko du azaroaren 21ko 23:59etan bozka gehien eskuratu dituen lanak. Izan ere, egun eta ordu horretan, bozkaketa prozesua itxi egingo da.

Bozkaketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da, eta sare sozialen bidez hedatuko da: Instagram eta Tik Token bidez

Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena etab.), herria saria hutsik gera liteke.

LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketara aurkeztutako parte hartzaileek baimena ematen diote Beldur Barik Programari, lana erabiltzeko BB inguruko ikus-entzunezko zein inprimitutako materialak sortzeko, promozionatzeko eta hedatzeko. Parte hartzaileek, gainera, honako ekintza hauetara baimentzen dute programa:

- Publikora irekitako erakustaldietan lanak erreproduzitzera eta proiektatzera (Topaketan, programaren aurkezpen saioetan...)
- Lanak egokitzea proiektatu edo erreproduzitu ahal izateko beharrezkoak diren formatuetara.
- Laneko irudiak edo pasarteak erabiltzera programaren aurkezpen materialetan sartzeko (aurkezpen spot-a, pieza grafikoak etab.).

Dena den, lanen bat hezkuntza edo kultur helburuekin erabiltzekotan, Beldur Barik Programa harremanetan jarriko da formularioan zehaztutako kontakturako pertsonarekin.

Norbait ados ez badago klausula honekin, antolatzaileei idatziz jakinaraztea eskertuko da.

Lehiaketako antolakuntzak ez du erantzukizunik bere gain hartzen, baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik egonez gero. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

DATU PERTSONALEN BABESA

Indarrean dauden Datu Pertsonalen Babeserako eta eskubide digitalen bermerako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta Europar Legebiltzarreko eta datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreaki dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko Kontseiluko 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Arautegian ezarri dena betez, Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak ohartarazten du emandako datu pertsonalak Emakunde - Emakumearen Euskal fitxategi automatizatu batean sartuko direla, datuen tratamendua egiteko. Datuak ez zaizkio hirugarren bati emango, tartean legezko obligaziorik ez bada behintzat, eta ez zaizkio hirugarren herrialderen bati jakinaraziko. Datu hauen erabilera bakarria Emakunderen Beldur Barik programaren kudeaketara mugatzen da eta pertsonaren onespenean oinarritzen du bere tratamendua.

Interesdunek legeak aurreikusten dituen eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko, tratamendua

mugatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango dituzte, bai eta Erregelamenduan aurreikusitako beste edozein eskubide ere. Datuen babesaren inguruko informazioa: www.euskadi.eus/proteccion-datos.

ANTOLAKETA

Lehiaketa Emakundek antolatzen du, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Aldundiek, Berdinsareareak eta EUDELeK bultzatzen dute; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eta Gazteria Zuzendaritzaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzarekin.

Informazio gehiago:

www.beldurbarik.eus

info@beldurbarik.eus / 603 918 090